

2014ko UDAZKENA - AUZO BATZARRAK

Auzoa	ARRAÑO
Data	2014-12-02
Ordutegia	19:03 – 20:30
Lekua	Erabilera anitzeko aretoa
Bertaratuak	<p>*Ordezkaritza politikoa</p> <ul style="list-style-type: none"> -Jon Iñaki Urkixo Orueta-Alkatea-(BILDU) -Koldo Zabala Atxa (BILDU) -Ametz Meaza Castañares (BILDU) -Alfonso Larrazabal Aldama (BILDU) -Maidier Basterra Ibarretxe (EAJ / PNV) -Nerea González García (OMNIA) -Julián Larisgoitia Zarate (PSE – EE) <p>*Udal teknikariak</p> <ul style="list-style-type: none"> -Felipe Markuartu Goikoetxea (lanen arduraduna) -Juan Fernando Etxebarri Goiria (lanen burua) - <p>*Idazkaria</p> <ul style="list-style-type: none"> -Irene Barrenengoa Pagazaurtundua <p>*Dinamizatzailea</p> <ul style="list-style-type: none"> -Kepa Mugurutza Goiri <p>*Auzokoak</p> <ul style="list-style-type: none"> -Guztira: 17 -Emakumezkoak: 9 -Gizonezkoak: 8
Gai-zerrenda	<p>1_ Aurkezpena</p> <p>Koldo Zabalak (BILDU) bertaratupei ongi etorria eman eta etorri izana eskertu die. Aurreko Batzarraren funtzionamenduari aipamen txiki bat egin dio (oinarri estrategikoen dokumentuaren azalpena eta auzokideen galdera-txanda interesa zuten gaien inguruan). Horren ondoren, gaurko Batzarra klasikoagoa izango dela esan du. Arrañoako auzokideak kezkatu dituen kontu batzuei buruz arituko dira eta azalduko dute zer egin duten eta zer dagoen egin gabe. Aipatuko diren gaiak, jakina, ez dira Arrañoan dauden kontu bakarrak. Dena den, aurkezpen txiki bat egin ondoren, auzokideen txanda izango da, aipatu diren edo aipatu nahi duten beste edozein gaiari buruz hitz egin dezaten. Koldok galdera-txanda kontrolatuko duen Kepa Mugurutza aurkeztu du eta aipaturiko txanda hori, arratsaldeko 20:30ean, ixten joango dela esan du.</p> <p>2_Obra eta Zerbitzuen Foru Plana. Jarduketak</p> <ul style="list-style-type: none"> - Tren geltokia – tunela – Maestro Elorza. Zenbatekoa: 2.890.473,04 €. - Lamuza parkeko azpiegiturak: Zumalakarregiko hodi biltzaileraino handitzea. Zenbatekoa: 1.266.034,51 €. <p>3_Lamuza parkea. Foru Planean oinarritzko azpiegiturak eta saneamendua berritzeko</p>

	<p>lanak sartu dira. 2015. Aurrekontua 1.266.034,51 eurokoa da eta Lamuzako zubia eta Zumalakarregiko oboidearen arteko saneamenduaren aurrekontua 331.377,97 eurokoa da.</p> <p>4_Arrañoko kirol-kantxa. Kirol-kantxa konpondu da. Zenbatekoa: 20.000 €.</p> <p>5_Aceros etxeen urbanizaziorako sarbide mekanikoa. III. fasea. Proiektua udan amaitu eta behin-behineko onarpena azaroko Osoko Bilkuran. Aurrekontua.</p> <p>6_Zumalakarregitik Arrañora doazen eskailerak. Argiteria eta itoginak.</p> <p>7_Arrañoko gaztelua. Auzolana= 20.000 €.</p> <p>8_Antenaren lekualdaketa.</p> <p>9_Aldapeta kalea: arriskua oinezkoentzat.</p> <p>10_Webgune berria: www.laudio.eus. Urtea amaitu aurretik martxan. Argiagooa, erabilgarriagooa, parte-hartzea sustatzeko hobea. Berritasunak: zu zeu udala. Beste berritasun bat: erantzun azkarra emateko postontzia, edozein auzokidek izapide bat egiteko nora jo behar duen galde dezan, edozein hutsegiteren berri telefono mugikor, tableta edo ordenagailu bidez emateko aukera. www.zurelaudio.net (auzo batzarretako aktak, etab.)</p> <p>11_Enpresa-haztegia. 9 lokal (15m²). Inbertsioa: 90.600 €.</p>
<p>Edukia</p>	<p>Koldo Zabala (BILDU) udal-esparruko obrei buruzko informazioa ematen hasi da.</p> <p>Obra eta Zerbitzuen Foru Plana.</p> <p>Bi obra handi daude:</p> <ol style="list-style-type: none"> 1. Zubiko-Kurajo kaleko saneamendu arazoa. Bere unean, obra honekin hasi zen eta orain egiten ari dena jarraipena da. Latiarrazko sarbide-tunela zabalduko da, orain dituen 2 metroetatik 7 metrotara eta tren-geltokirako irisgarritasuna hobetuko da. Aurrekontua 1.500.000 eurokoa da. Horietatik, Arabako Foru Aldundiak 700.000 euro jarriko ditu eta gainerakoa, udalak. 2. Aldaikoerreka erreka hobetzeko lanak. Lamuza parkeko Plan Berezia aurreikusita zegoen. Saneamendu arazoak daude eta uda garaian usain txarrak daude. Oso zaharkituta dago. Ura galtzen zen. Ur beltzak Zumalakarregiraino eramaten dira. Aurrekontua 1.266.034,51 eurokoa da. Horietatik, % 90 diruz lagunduta dago eta gainerakoa, Udalak jarriko du. <p>Arraño auzoan egindako lanak:</p> <p>Arrañoko pista hobetzea.</p>

Bi aukera aurkeztu ziren eta auzokideek erabakitakoaren alde egin zen. 20.000 euroko inbertsioa.

Arrañoiko irisgarritasun arazoa.

Arrañoiko irisgarritasun lanen III. fasean gaude. Orain dela hilabete batzuk proiektu bat enkargatu zen eta auzokideei aurkeztu zitzairen ekarpenak egin ahal izateko. Behin hauek eginda, hasierako onarpena osoko Bilkurara eraman da. **OHARRA: 2014ko azaroaren 24ko ohiko Bilkuran onartu behin-behinean.** Koldok (BILDU) argi utzi nahi du hasierako onarpena dela eta udalak Arabako Aldizkari Ofizialean argitaratu behar duela. Iragarkia ALHAOn behin argitaratu denean, (**OHARRA: 2014-12-03an argitaratua**) alegazioak egiteko epea zabalduko da. Iragarkia udaletxean jarri eta Arrañoiko etxeetan oharrak ezarriko dira jendeak alegazioak egiteko unea dela jakin dezan. Alegazioak entzun eta ikusi ondoren, behin betiko onarpena egingo da. Hortik aurrera, beharrezko baliabideak daudenean, egingo litzateke. Aurrekontua 431.841,36 eurokoa da. Proiektuan jasota dago José Mardones kaletik Aceros lehenengo etxeetaraino dauden zenbait sarbide-arrapala egokituko direla. Hortik, proiektuan dago igogailu panoramiko bat. Hiru geldialdi egingo ditu. Haietako azkena, Aceros etxeen goiko alderaino iritsiko da, irisgarritasun arazoa konponduko lukeena. Proiektuaren inguruan jakin-mina egonez gero, auzokideei udaletxera hurbiltzeko gonbitea egin die teknikarien azalpenak jasotzeko eta esan die, beharrezkoa ikusiz gero, beste bileraren bat egin zitekeela.

Zumalakarregitik Arrañoira doazen eskailerak.

Eremu honetan esku hartzea eskatu zen eta beharrezko lanak egin dira hezetasunari nahiz eskaileretan eta igogailuko sarreran dauden argiztapen-arazoei aurre egiteko. Koldok dio auzokideek egindako hobekuntzak ezagutzen dituztela eta galdera-txandan egokiak diren adierazteko aukera izango dutela.

Arrañoiko gaztelua (Auzolana).

Koldok auzokideen lan eskuzabala eskertu du, hainbat asteburutan, barruko materiala atera eta ingurunea berreskuratu dutelako. Gazteluaren goiko aldea estali eta inpermeabilizatu edo irazgaiztu egin da, lanean egon diren auzokideek eskatuta, hortik abiatuta, barruan lanean jarraitu ahal izateko.

Antena lekualdatzea.

Aspaldiko kontua da eta gaiarekin bukatzeaz gaudela ematen du. Arrañoiko goiko aldean dagoen telekomunikazio-estazio berriarekin bukatu da. Hainbat atzerapen egon da. Ez zegoen estazio zaharra kudeatzen zuen eta berria ere kudeatuko duen enpresaren esku. Industria Sailaren eta Iberdrolaren ardura zen eta azken honek estazio berriari konexio elektrikoa eman behar zion. Iberdrolak oztupoak jarri zituen, nahiko nabaria zen sareta-dorre bat jarri nahi zuelako. Haiekin negoziatu da inguruko paisaia hainbeste eragin sortzen ez duen beste zerbait jartzeko eta aipaturiko dorrea ez jartzea lortu da. Industria Sailak dagokion baimena eman behar zuen eta prozesua nahiko geldi izan du. Gaur egungo egoera hau da: ekipamenduak lekualdatzen ari dira eta bi astetan, urtea amaitu baino lehen, berria martxan egongo da. ABERTIS enpresak aurreko antenaren desmuntatzea kontratatu du eta estazio berria martxan dagoenean egingo da. Araudiak dioenez, enpresak igorpen erradioelektrikoen mailaren ziurtagiria aurkeztu behar izango du, Industria Ministerioak eman behar duena. Estazio berriaren inguruari dagokionez, Koldok dio auzokideren batek bertako zelaia berreskuratzeko eskatu duela. Enpresak,

	<p>behin betiko lekualdatzea egin ondoren zelaia berreskuratzeko konpromisoa hartu du.</p> <p>Aldapeta kalea: arriskua oinezkoentzat. Azken batzarrean gai honetaz hitz egin zen. Hainbat auzokidek Arrañoako aparkalekuaren eta Aldapeta kalearen artean oinezkoentzat dagoen arriskuaz aritu ziren. Auzokide interesatuekin hitz egin zen, stop bat instalatu zen eta oinezkoentzako pasabidea plastikozko mutiloi bidez babestu zen autoak pasatzean segurtasuna hobetzeko.</p> <p>Gai orokorrak:</p> <p>UDALAREN WEBGUNE BERRIA (www.laudio.eus) Beste tresna bat da, Udalaren eta auzokideen arteko komunikazioa hobetzekoa. Aurreko webguneak hobekuntzak behar zituen. Elementu berri horietako bat da erantzun azkarra izango duen galdera orokorra egin ahal izateko postontzia, nora jo behar dugun esango diguna. Hauek dira helburuak: webgunea argiagoa, erabilgarriagoa eta parte hartzea sustatzeko hobe izatea. Koldok dio auzokideentzat lagungarria izan daitekeela informazioa azkarrago eskuratzeko. Aurreko webgunea nahiko zaharkituta zegoen eta Udal Arlo guztiei balio ez duena begiratzeko eta dagokion informazioa eskura jartzeko esan zaie. Urtariletik aurrera martxan jarriko da eta edozein telefono mugikor edo tabletatarako erabilgarri egongo da.</p> <p>ENPRESA-HAZTEGIA. 90.000 euro inguru inbertitu egin dira. Artza udal eraikinean, bulegoetarako 15m²-ko 9 gela prestatu dira. Ekintzailerentzako lekuak dira, telefono eta internet konexioa izango dituztenak. Hilero, gutxieneko alokairua ordainduko litzateke, 100 euro baino zerbait gehiago. Udalak argia eta ura ordainduko lituzke. Hasteko, ez luke inbertsiorik izango. Negozio bat abian jarri nahi dutenentzat lagungarria izango delakoan daude, hasieran, arriskurik hartu behar ez izateko. Interesaturik egonez gero, udaletxean informazioa eskatzera animatu nahi du.</p>
<p>Galderak</p>	<p>Natxok mahaia aurkeztu ez duela gogoratu dionez, Koldok horri ekin dio. Mahaian: Nerea (OMNIA), Natxo (alkatea) eta Koldo (BILDU). Publiko gisa: Maider (EAJ/PNV), Amets (BILDU) eta Fontso (BILDU). OHARRA: Une hartan, PSE-EE alderdiko ordezkari Julian Larisgoitia ez zegoen oraindik bertan.</p> <p>Basilio (auzokoa).- Tratatzen den gai bakoitza zehaztu egin nahi du. Bere ustez, auzoaren irisgarritasunarena da gairik garrantzitsuena: igogailu panoramikoa. Egutegiari buruz zerbait zehaztu den eta egikaritze-datarik aurreikusitako ote den galdetu du.</p> <p>Koldo (BILDU).- Lehenik eta behin, aurrekontu partida bat hornitu beharra dago. Une honetan, ez dakite zer aurrekontu izango duten 2015erako. Gaiak lehentasuna du, Aretako Iturraldekoa bezala. Agerikoa denez, udalbatzak uste du aurrekontuak horretarako gaitasuna eman bezain laster egikaritu behar dela.</p> <p>Basilio (auzokoa).- Egungo egoeran, ez du beharrezkotzat jotzen arrapalak %6ra egokitzekeko dirua gastatzea.</p>



Koldo (BILDU).- Esandakoa ulertzen duela erantzun dio eta gehitu du irisgarritasuna hobetzeko diru-laguntza handiak deitu ohi direla eta ezingo lituzketela eskatu irisgarritasunaren inguruko baldintzak beteko ez balira.

Basilio (auzokoa).- Esan du tamalgarria dela arrapaletako lanak duela hain gutxi bukatuta ere, lanek akatsak izatea.

Begoña (auzokoa).- Aldapeta da Arrañora sartzeko bide nagusia. Udalak marrak margotu ditu zoruan, inora ez doan zebrabidea jarri du eta pibote edo gontzak ere jarri dituzte. Hala ere, jendeak errepidearen bi aldeetan aparkatzen ditu autoak eta ez dago bermatzeko lekurik. Hortaz, errepidean zehar ibili behar du. Espaloi zintarriduna eskatu du eta uste du bereziki zaindu beharreko zonaldea dela, Arrañorako sarbidea delako.

Kepak (moderatzailleak) txanda hartu du gogoratzeko galdera zehatzak egin behar direla. Andreari galdetu dio ea espaloiak eskatu dituen eta hark erantzun dio baietz. Kepak gogorarazi du hitz egiteko eskua altxatu behar dela eta besteen txandak errespetatu behar direla.

Koldo (BILDU).- Baietz erantzun du, marrak margotu direla eta piboteak jarri direla. Zebrabideari buruz, esan du auzokoei kontsultatu zitzaieela eta erabakiak eurekin batera hartu direla. Ziur dago espazio seguruagoa sortu dela.

Begoña (auzokoa).- Esan du inork ez duela zebrabide hori erabiltzen eta igogailutik bide osagarria egitea proposatu du, José Mardones kaletik igaro gabe.

Auzokoa.- Esan du Zumalakarregitik datorren igogailua Aldapeta kalearekin komunikatzen saiatu zirela, José Mardones kaletik igaro beharrik gabe eta auzoko batzuk zebrabidea jartzeko hainbat aukera aztertzen egon zirela Koldo Zabalarekin nahiz Udaltzaingo buruarekin batera.

Auzokoa.- Esan duenez, Udalak adierazi zien lan txikia zela eta bi pintura ontzi, lau mutiloi eta beste hiruzpalau gauza besterik ez zituztela inbertituko. Espazio seguruagoa lortu dela adierazi du eta Udalari hitza bete izana eskertu behar zaiola.

Kepak (moderatzailleak) esku hartu behar izan du, hainbat pertsona aldi berean hitz egiten ari zirelako eta adierazi du jasota geratu dela zintarridun espaloia eskatu duen andrearen eskaera.

Mariano (auzokoa).- Sara Martinezek igogailurako egin duen proiektuari buruz, galdetu egin du auzokoek pasabidea aldatzearen inguruan egin zituzten ekarpenak kontuan hartu ote diren.

Koldo (BILDU).- Jaso egin direla esan du, baina, edonola ere, edozein zalantza izatekotan, teknikariekin berriro biltzeko eta jaso egin direla egiaztatzeko hitzordua eska dezaketela. Ekarpn egiteko unea dela esan du eta, beraz, ekarpenak egiten jarrai dezaketela.

Mariano (auzokoa).- Goiko kantxa berria oso ondo dago, baina uste du ez dela segurtasuna kontuan hartu. Goiko parke berriko sareta metalikoak beheko aldea solte du eta arriskutsua da, altuera handia dagoelako eta norbait erori daitekeelako.



Felipe (lanen arduraduna).- Duela gutxi konpondu zen, baina askotan, txitean-pitean apurtzen dute.

Mariano (auzokoa).- Galdetu du itxiera sendoagoa jartzeko aukerarik ote dagoen, bestela, egunen batean zorigaiztoa gerta daitekeela.

Felipe (lanen arduraduna).- Beste itxiera motaren bat instala daitekeela erantzun dio.

Auzokoa.- Auzoko estoldetako asko soldatuta daude eta buxatu egiten dira euria gogor botatzen duenean. Zarata handia egiten zutelako soldatu ziren eta, beraz, ezin dira garbitu.

Idi-probak daudenean auto partikular asko igotzen dira eta Arraño auzoan bazeuden lehendik ere aparkatzeko arazoak. Ba al dago arautzeko aukerarik? Udaltzainei ditu ohi zaiela eta etorri egiten direla esan du. Iradoki duenez, idi-proben egunean trafikoa arautu ahalko litzateke auzokoak soilik sartu ahal izateko.

Koldo (BILDU). -Erantzun duenez, Natxorekin hitz egiten ari zen Kultura Arloarekin koordinatzeko beharraz, eurek eramaten dutelako antolatzen diren jardueren kontrola. Iradoki du idi-proba hasi baino ordu erdi lehenago udaltzainek trafikoa erregulatu lezaketela.

Natxo (alkatea).- Ellakurin egiten diren jarduerak bezala koordina daiteke. Jakin badakigunez toki problematikoa dela, jarduerak antolatzen dituen kluba udaltzainekin koordinatzen da nor igaro daitekeen eta nork aparka dezakeen erabakitzeko.

Auzokoa.- Aldaikoerrekako aparkalekuan aparkatzeko aukera dago eta, ondoren, probatokira oinez igo daiteke. Garagardotegian ere iragarki bat jar liteke, Aldapeta kalearen hasieran, sarbidea auzokideentzat soilik dela adierazteko.

Koldo (BILDU). - Kulturarekin eta Udaltzaingoarekin hitz egingo dutela esan du.

Juanjo (auzokoa).- Sareta metalikoaren gai berbera atera zen aurreko Batzarrean ere. Modeloa aldatzea proposatu du, askotan hondatzen dutelako eta ez duelako gutxieneko iraunkortasuna. Izkinetan gotorlekuak jartzea proposatu du, baita zortzi metroko "herkules" hesia ere, Udalarentzat ez delako gastu handia izango. Bere ustez, garestiagoa da aldan-aldan langileak hesia konpontzera bidali behar izatea. Bestela esanda, modeloa aldatzea proposatu du, bestela, egunen batean istripu larriren bat gertatuko da, aurrekoan handik zebilen jendea ez zegoelako baldintzarik onenetan. Arrañoarako igoerari buruz, esan du lehen proiektuan bidea kolore batez margotzea eta alboak beste batez margotzea aurreikusitako zela. Esan du ezin zela espaloirik jarri bi ibilgailu aldi berean igarotzea eragozten zuelako. Hala eta guztiz ere, ezin izan zen egikaritu, aurrekontua agortu zelako. Adierazi duenez, zeuden aukeren arteko osasungarriena oinezkoentzat egin den bidea da, auzoko guztien artean erabakitakoa.

Koldo (BILDU).- Ikusi du Aldapetarako bidea estua dela eta, kontuan hartzeko moduko aldapa dagoen arren, autoak abiadura handian igarotzen direla.

Juanjo (auzokoa).- Antena lekualdatzeko epeak zeintzuk diren galdetu du.

Koldo (BILDU). - Desmuntatzea dagoeneko kontratatuta dagoela erantzun dio.



Basilio (auzokoa).- Galdetu du ea bermatuta dagoen legegintzaldia bukatu aurretik antena kenduko egingo dela.

Koldo (BILDU).- Erantzun du hori ziurra dela. Gaur bertan hitz egin dute antena kudeatzen duen enpresarekin, ABERTISEkin, eurek agertu dutelako interesik handiena. IBERDROLAK oztopo asko jarri dizkigu, sareta-dorre bat jartzearekin tematu direlako, korronte elektrikoa eramateko asmoz. Azkenean amore eman dute, baina nahiko luzea izan da prozesua. 15 egunen buruan, lekualdatzen bukatuko da. Oker ez egotea eta lanak urtea bukatu aurretik hastea espero dut, kontuan hartu behar dugulako langileek oporrak izango dituztela Gabonetan, hitzarmenean hala jartzen baitu.

Juanjo (auzokoa).- Jakin nahi du noiz desmuntatuko diren elementuak eta noiz eraitsiko den etxola.

Koldo (BILDU).- Esan du gauza berrieekin bukatutakoan eraitsiko direla gauza zaharrak.

Auzokoa.- Etxe aurrean sei kutxatila ditu eta zarata handia egiten dute. Gainera, ez dira garbitu.

Felipe (lanen arduraduna).- Kutxatilak garbitzeari buruz: beheko aldetik hasi da lana. Zaratari dagokionez: ziurrenik, estalkiak aldatu beharko dira. Euskaltelenak eta Iberdrolarenak dira. Batzuetan, Euskalteli deitzen bazaio, aldatu egiten dituzte. Iberdrolarekin gehiago saiatu behar izaten da.

Koldo (BILDU).- Esan du Aretako zuzenean dagoen kutxatila Udalak aldatu behar izan duela.

Begoña (auzokoa).- Garbiketa behar bezala egin da.

Auzokoa.- Esan du Batzokitik goraino dauden 20 kutxatilek zarata ateratzen dutela.

Koldo (BILDU).- Horren berri emango zaie zerbitzu teknikoei eta Euskalteli nahiz Iberdrolari euren kutxatilen egoera jakinaraziko zaie.

Felipe (lanen arduraduna).- Kutxatila guztiak ireki beharko dira.

Auzokoa.- Adierazi du hau dela umeentzako parkerik ez duen auzo bakarra. Kantxa egin da, baina nagusiagoentzat da.

Koldo (BILDU).- Galdetu egin du horretarako zonalderen bat pentsatuta ote zuten.

Auzokoa.- Erantzun dio aparkaleku berriaren inguruan jar litekeela.

Koldo (BILDU).- Aldapa handia dagoela esan du.

Mariano (auzokoa).- Gazteluaren zelaigunean jar liteke.

Koldo (BILDU).- Espazioa adostu beharra dagoela esan du eta bolatokiaren ingurua proposatu du.

Natxo Urkixok (alkateak) eta zenbait auzokidek erantzun dute han ere aldapa handia dagoela. Natxok esan du hobe izango litzatekeela gazteluaren ondoan jartzea.

Koldo (BILDU).- Jendeak toki egoki bat pentsatzea iradoki du.

Auzokoa.- San Juan sua egiten den lekuan jar liteke.

Auzoko beste bat.- Esan duenez, igogailu panoramikoaren proiektuan umeentzako parkea jartzeko espazio bat zegoen aurreikusita.

Basilio (auzokoa).- Igogailuaren proiektu berrian espazio txikia aurreikusi da.

Kepak (moderatzailleak) txanda hartu behar izan du mundu guztiak aldi berean hitz egiten zuelako.

Auzokoa.- Galdetu egin du iragarkiak (bandoak, bileretarako deialdiak, etab.) jartzeko toki bat prestatzeko aukerarik ote dagoen.

Koldo (BILDU).- Esan du auzokoek iragarki-oholak jartzeko tokiak proposa ditzaketela eta proposamenak Udalean aurkez ditzaketela.

OHARRA: Idazki bat aurkeztu dute 2014ko abenduaren 15ean, 13576 sarrera-erregistroarekin.

Mariano (auzokoa).- Galdetu egin du gazteluko teilatua inpermeabilizatzen bukatu duten.

Koldo (BILDU).- Erantzun dio bukatuta dagoela.

Mariano (auzokoa).- Esan du auzokoek esku hartu beharko dutela eta teilatuaren gainean porlanezko geruza bat bota beharko dutela.

Koldo (BILDU).- Udaletxera joateko eta arkitekto teknikoarekin hitz egiteko gonbita luzatu dio.

Basilio (auzokoa).- Oinezkoentzako sarbideari buruz, galdetu egin du eskuineko aldetik oinezkoek irtenbiderik ote duten.

Auzokoek txanda hartu dute esateko hori ez dela posible.

Basilio (auzokoa).- Aurrera jarraitu du eta, gazteluari buruz, esan du hurrengo bilera bertan egin ahal izatea espero duela. Esan duenez, 20.000 € zituzten, baina ez zuen inork espero teilatua konpondu beharko zenik. Teilatua lauazekin estaltzeko beste 20.000 € hornitzea eskatu du. Dirua behar dute eta, horretarako, partida bideratu beharko da. 2015eko aurrekontua dagoeneko onartu den galdetu du.

Koldo (BILDU).- Esan du oraindik ez dutela onartu, baina proposamena kontuan hartuko duela. Edonola ere, esan du Udalak lanetarako behar diren materialak ere horni ditzakeela eta arkitekto teknikoari kontsultatu beharko zaizkiola egin daitezkeen lanak.

Gehitu du ez dugula inbertsioen zain egon beharrik.

Basilio (auzokoa).- Gutxika-gutxika gauzak jarri beharko direla esan du.

Koldo (BILDU).- Azaldu du ez zegoela aurreikusita teilatua botatzea, baina teknikariek esan zuten ez zela segurua eta txosten batek esaten zuenez teilatua ez zeukala ondare balio berezirik, eraistea erabaki zela. Onena teillatu berria egitea zen, handik aurrera egingo ziren lanak segurtasunez egingo zirela bermatzeko. 20.000 € baino zerbait gehiago gastatu dira ezusteko horretan.

Mariano (auzokoa).- Feliperi (lanen arduradunari) gaztelu barruan lan egiteko argia eta ura eskatu dizkio, baita isurbideetarako proiektu bat ere.

Felipek eta Juanferrek (lanen buruak) esan dute ez dela ura sartzeko arazorik izango, baina ez dagoela isurbiderik.

Basilio (auzokoa).- Erantzun du badagoela bat, probatokira doan arrapalan dagoela. Kutxatila handi bat dagoela esan du, eurek ikusi dutela.

Juanfer (lanen burua).- Esan du ez duela gorozki-uretarako isurbiderik ezagutzen.

Felipe (lanen arduraduna).- Esan du begira daitekeela. Esan duenez, urarekin ez dago arazorik eta, argiari dagokionez, Simeoni esan zion IBERDROLAren behar bezalako kontratu bat egin behar zela sarrera-koadroa jartzeko eta handik probatokirako, bolatokirako nahiz gaztelurako hargunak.

Mariano (auzokoa).- Esan du gazteluan lan egiten dutenean gastu handia egiten dutela, argia probatokiarekin konektatzen duten bakoitzean probatokiko fokua piztu behar dituztelako eta foku horiek asko kontsumitzen dutelako, makinek bezala.

Koldo (BILDU).- Beharrezko kudeaketak egingo direla adierazi du eta Juanferri (lanen buruari) esan dio Simeoni (Mantentze-lanen Arloburuari) IBERDROLAren aipatzeko (sarrera-koadroa jartzea eta lanak bizkortzea).

Felipe (lanen arduraduna).- Isurbideena begiratuko dutela esan du.

Auzokoa.- Kaleko argiei buruz, aurreko Batzarrean aipatu zen argiztapen arazoaren zergatia kale-argien garbitasun falta zela. Esan duenez, Zumalakarregiko argi berriekin alderatuta, nabarmena dela auzoko argiek argi gutxiago ematen dutela.

Koldo (BILDU).- Udalerriko argiteria aldatzeko asmoa dagoela esan du. Estolden kasuan bezala, FCC enpresari dagokio kale-argiak garbitzeko lana. Gehitu du kale-argiak garbitzera joateko esango dietela.

Auzokoa.- Sasiz betetako eremu bat dagoela esan du.

Natxo (alkatea).- Galdetu egin du non dagoen.

Felipe (lanen arduraduna).- Landaluzeko 1.eko etxeen goiko aldean dago, sastrakaz jositako lursaila da. Garai batean ez zen Udalarena. Esan du uste duela lursaila trukatu



egin dela. Etxearen erdiko aldetik Landaluzerako bidean, goiko aldean, Udalak badu lursail bat. Esan du zerbait egin dela horrekin eta Koldori iradoki dio katastroan begira dezala.

Koldo (BILDU).- Esan du trukatzeko bat baino gehiago dituztela martxan eta katastroan galdetuko duela prozesua zertan den.

Nerea (OMNIA).- Uste du trukatzeko ez direla amaitu, baina amaitzekotan daudela.

Auzokoa.- Garbitasunari dagokionez, adierazi du FCCk ez duela gaztelutik gora garbitzen eta uste du enpresa dela horren erantzulea.

Mariano (auzokoa).- Gehitu du zonaldea hostoz beteta dagoela eta auzokoek garbitzen dutela. Horrez gain, hormako sasiak ere garbitzen dituzte.

Felipe (lanen arduraduna).- Esan du deitzeko eta abisua Obren Arloan uzteko.

Mariano (auzokoa).- Esan du deitu izan dienean bertaratu egin direla, baina aldizka joan daitezkeela iradoki du, deitu beharrik gabe.

Koldo (BILDU).- Esan du enpresari jakinaraziko diola.

Juanfer (lanen burua).- Garbitzea FCCren ardura da eta sastrakak kentzea Udalarena.

Kepa (moderatzailea).- Galdetu egin du norbaitek planteatzeko gairik duen. Ez duenez inork ezer esan, Batzarra bukatutzat jo du eta bertaratu izana eskertu die guztiei.

Julian Larisgoitiak (PSE – EE) hitza hartu du.

Julian (PSE-EE).- Faltan bota du auzokideek politikariei galderak egitea. Zeintzuk dira bertako auzokideek benetan dituzten arazoak? Bertaratutakoei galdetu die une txarrak bizitzen ari den, goseak dagoen edota oinarritzko beharrak dituen jendea antzeman ote duten. Gehitu du Auzoetako Batzarrak ez direla soilik herri-lanen gaiak tratatzeko eta politikariek gai horiek ere tratatzeko daudela.

Auzokoa.- Erantzun dio irisgarritasuna dela adineko pertsonen arazo nagusietako bat: irisgarritasun-arazoaren ondorioz, asko auzotik joan behar izan dute eta beste asko ez dira etxetik irteten. Haren ustez, adineko jendeak biltzeko esparru bat izan dezaten hartu da gaztelua berreskuratzeko erabakia.

Basilio (auzokoa).- Erantzun du ez dutela jendearen egoera pertsonalari buruzko datuak, ez dakitela jendea gaizki pasatzen ari den. Ados dago pertsonak lehenengo gauza direla adieraztean. Gaztelua aurrera ateratzen bada, erreferente bihur daiteke eta laguntza eman ahal izango da.

Mariano (auzokoa).- Esan du igandean Batzar bat izan zutela jendeak dituen arazoak planteatzen eta inork ez zuela Julianek aipatutako gaia planteatu.

Julian (PSE-EE).- Gai horiek jorrazteko lotsa handia dagoela erantzun du.

Juanfer (lanen burua).- Batzarrak ez dira komunikatzeko toki bakarra eta egunero daude udaletxean. Badaude zenbait gai jendeak besteen aurrean tratatu nahi ez dituenak.

Mariano (auzokoa).- Erantzun du auzokideen eskaerak transmititzeko egin zutela Batzarra.

Juanjo (auzokoa).- Batzarrak kalean egin behar izan dituzte auzokoek. Esan duenez, garai batean ez zegoen Batzarrik Arrañon, baina auzoko pertsona batzuei esker, solasean ibiltzeko eta konfiantza sortzeko toki bat prestatu nahi dela. Gehitu du konfiantza sortzeko baldintza egokiak izatea espero duela, jendeak bere arazoak kontatzeko aukera izan dezan.

Mariano (auzokoa).- Juliani erantzun dio politikarien lana dela horrelako egoerak ez gertatzen saiatzea.

Auzokoa.- Lokal soziala auzokoen arazoak azaltzeko topagune gisa ikusten du.

Julian (PSE-EE).- Drogaren gaia ere auzokideen artean hitz egin daiteke. Auzoan egiten diren hobekuntza guztiak hoberako izango dira. Jendeak bizi duen egoeraz gehiago jakin nahi du. Gehitu du Gizarte Ongizate Arloak oso ondo funtzionatzen duela.

Basilio (auzokoa).- Auzo Batzar hau ez da eztabaidagune egokia. Behar gorriren baten berri izango balute, berehala jakinaraziko lukete.

Julian (PSE-EE).- Laudion 1.800 pertsona lanik gabe daudela esan du.

Basilio (auzokoa).- Adierazi du igogailuaren gaiaren ondorioz, urtero pertsona batzuek auzoa uzten dutela.

Auzokoa.- Politikariek ados jarri behar dutela eta herriko arazoak konpondu behar dituztela esan du.

Juanjo (auzokoa).- Julianek (PSE-EE) adierazitakoaren inguruan, esan du ez dela gaia tratatzeko toki egokia.

20:30ean bukatutzat jo da Batzarra eta auzokoei bertaratu izana eskertu zaie.